



DAD Kutxa 2019 Mus Txapelketa

ADI: GOMENDATURIKO IRAKURKETAREN JAKINARAZPENA – OSO GARRANTZITSUA – PASA EZAZU.
MESEDEZ

A28koaren ondoren, Espainiako estatuak izan dezakeen itxura kontuan harturik, gure arbasoen karta-jokoari zuzen-zuzenean eragin diezaioketen arau berriak jakinarazten dizkizuegu. Ziur asko aurtengo (2019) txapelketa izango da egungo ezaugarriekin eta moduan jokatu ahal izango den azkena. **Beraz, edizio historiko honetan parte hartzera animatzen zaituztegu.**

Hauteskunde-programak eta gero sortu litezkeen itun politikoak aztertu ondoren, litekeena da egungo joko-arauak eta jokatzeko era nabarmen aldatzea eta oso bestelakoa izatea gero. Hona hemen zerrenda:

1. Hasteko, kontuan izanda pertsona orok duela Espainiako estatuan nagusi den hizkuntzan (gaztelanian) mintzatzeko obligazioa eta eskubidea, aurrerantzean musean debekatu egingo da beste 'dialekto' batzuetako hitzak erabiltzea, baita bikote-kideen artean iritziak trukatzeko ere ofizialki ezarritakoa (hau da, gaztelania) ez den beste hizkuntza batean.

Horretaz gain eta arrazoi beragatik ezingo dira erabili orain arte erabiltzen ziren hitzetako batzuk:

MUS: Iritzi ezberdinak daude joko hau definitzen duen hitzaren jatorriaz. Batzuentzat euskarazko MUSUtik dator (gaztelaniaz “beso”), aldi berean jokaldi garrantzitsu bat daukagula adierazten duena (azpizun edo solomilloa: hiru errege eta batekoa). Beste batzuentzat LATINA da (“Ez dut hitz egiten”). Zalantza guztiak uxatzeko, joko hau aurrerantzean BULL deituko da, eta kito. Alde batetik, hitz laburra da, jatorri anglosaxoi garbikoa, eta horrela joko hau nazioartekotu egin nahi da; bestetik, benetan espainiarra den eta atzerrian oso ezaguna den beste tradizio batekin erlazionatzen da: BULL FIGHTING (Zezenketak).

ORDAGO: Proposamen hauek onartzen badira, aurrerantzean honela esango da: *AHÍ ESTÁ LA PUERTA DE ALCALÁ (si quieres lo coges y si no lo dejas)*. Jokoa biziagoa eta arinagoa egite aldera, forma laburragoa ere onartuko da (inertziak eta partidaren tirabirak horrela eskatzen duten kasu jakinetarako): *AHÍ ESTA LA PUERTA*. Salbuespenezko kasu batzuetan aski izango da AHÍ ESTÁ bakarrik esatea. Adibidez: “35-11 doaz, AHÍ ESTÁS? sartuko dugu, kartak ikusi gabe, AHÍ ESTÁ Handira eta AHÍ ESTÁ Txikira jotzen badugu”.

ENBIDO: Hitz honen jatorri etimologikoaz zalantzak daudenez gero (ea euskarazkoa edo gaztelaniazkoa den), badaezpada horren ordez **ENDOSDO** hitza erabiliko da. Jo honek “Bi” harri jokatzeari esan nahi du. Kontra egiteko “*Endosdo más*” esan beharko da, edo “**Endosdo N** (N jokatzeko den harri-kopurua izanik)”,... harik eta “Todas” edo arauzkoagoa den “Ahí Está la Puerta de Alcalá”raino iritsi arte.

HAMARRETAKOS: Bost (5) tantoko multzoa aurrerantzean “Cinquillo” deituko da. Honela partidak 8 cinquillokoak (40 tantokoak) izango dira, edo 6 cinquillokoak (30 tantokoak), ...

TXIKOS: Zalantza dagoelako honen jatorriaz eta euskarazko grafia duenez, aurrerantzean, **SETs** deituko dira, eta partida 7 edo 5 set-etako onenera izango da. Hitz honekin ere hain espainiarra den joko hau nazioartekotzen lagunduko da.

TXAPELA: Boina.

Jakina, araudi berri honek ez dio eragingo keinuen erabilerari, hauek mutuak izanik eta nazioartean ezagunak, ez baitute sortzen hizkuntza edo dialekto txikiak erabiltzeak sortzen duen babesgabetasunik.

2. Bestalde, egungo gizarteak emakumearen parte-hartze kuota bat eskatzen du herri-bizitzaren eremu guztietan; kontuan izanda txapelketa hauetan normalean izaten den kuota teoriarik behar denaren oso azpitik dabilela, pizgarriak jarriko dira kuota handiagoetara iristeko helburuz.

Horretarako, txapelketa hauetan jasotzen diren egungo diru-laguntzak asko murriztuko dira emakumezkoen parte-hartzea nahi baino txikiagoa baldin bada. Gure txapelketaren kasuan, hutsaren hurrengoa jasotzeko arriskua dugu kontzeptu honengatik.

Gainera, emakumezkoen parte-hartzea “Aldez aurretik irabazitako partida (SET)” bidez sarituko da. Hau da, bikote batean emakume bat baldin badago, hasteko, eta besterik gabe, 1-0 abantaila emango zaio. Bikotean biak emakumeak baldin badira, 2-0 hasiko dira irabazten.

Txantxak alde batera, emakumeen parte-hartzeari dagokionez, gure kuota oso kaskarra da. Beraz, neska guztiak animatu nahi ditugu bere eguneroko lanetan tarte bat aurkitu eta erakuts dezaten, Monsieur Carte eta engainuaren joko honetan ere gizonetakoak bezain trebe eta iaioak direla, edota gehiago ere bai.

Aurtengo Txapelketa maiatzaren izango denez, ia ezinezkoa da apirilaren 28ko hauteskundeak igaro eta arau hauek azkar ezarri ahal izatea, aurtengo betearazi ahal izateko. Baina 2020 eta ondorengo urteetarako, okerrenaren beldur gara gau.

Txapelketa ofizialki apirilaren 29an, astelehenean, hasiko da (hauteskunde biharamunean) eta maiatzaren 31n, ostiralean, amaituko da. Bitartean, lehenengo bi asteak lehen faseko partidak jokatzeko izango dira, gero astebeteko atsedenaldia, eta azken bi asteetan bigarren fasea jokatu da. Maiatzaren 31n, ostiralean, finalaurrekoak, finala, trofeoak emateko afaria eta Txapelketa Lasterra.

Egutegia guztiz malgua da partidak jokatzeko, betiere hemen jasotakoari egokitzen bazaio. Aurkariekin ados jartzea da kontua, eta fase bakoitzerako ezarritako epeetan jokatzeko partidak.

Urtero bezala, bi txapelketa egingo ditugu batean. Lehiaketa Erregularra, itzuli bateko liga-sistema bidez: arautuko duten oinarriak bere garaian jakinaraziko zaizkie bertan parte hartzen duten guztiei. Eta maiatzaren 31n, ostiralean Lehiaketa Lasterra jokatu da, trofeoak emateko afariaren ondoren. Biak independenteak dira eta beren sariak dauzkate.

Txapelketa Erregularreko lehen bi bikoteak, DAD Kutxaren ordezkari gisa, Kutxetako Enplegatu Elkarteen arteko Txapelketara joango dira; aurten Segovian izango da.

Bere garaian jakinaraziko zaizkizue partiden lekua, eguna eta ordua. Ordutegiari dagokionez, noski, lan-zirkunstantziak kontuan hartuko dira eta horietara egokituko gara.

Parte hartzeko interesa baldin baduzu, bidali mezu elektronikoa bat Mitxel Alonsori (mitxelalonso@gmail.com) honako datu hauek emanez:

- Bikotearen izen-abizenak
- Bulego edo Sailaren zenbakia, eta lan-egoera (aurretik erretiratu, erretiroduna edo antzekoak)
- Harremanetarako telefonoak / Telefono mugikorra
- Zein eskualdetan parte hartuko duzun
- Jakinarazpenak jasotzeko helbide elektronikoa.

Oso garrantzitsua da telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa ematea. Jakinarazpen guztiak bide hauetatik (batez ere, posta elektronikoz) egingo dizkizuegu eta.

Aurreko urteetan bezala, eskualdeak egongo dira, eskualde bakoitzerako izena emandako jendearen arabera. Behar den taldea osatzen bada (5 bikote eskualdeko) lehen faseko partidak eskualde horretan egingo dira. Eta parte hartzeko interesa baldin baduzue eta bikoterik ez, hala ere bidali zeuen datuak eta saiaturako gara elkartzen egoera berean dagoen beste norbaitekin.

Era eta mota guztietako eginbeharrek lehiaketa erregularrean parte hartzea eragozten badizute, hori ez da oztopo bukaerako otordurako eta ondorengo KO lehiaketarako izena eman dezazun. Bikotearekin etortzen bazara ondo, eta bestela, guk egingo dizugu bitartekari-lana.



Izena emateko azken eguna: apirilaren 24a, osteguna.

Txapelketari buruzko zalantzak argitu edo kontsultak egiteko, jarri harremanetan gurekin hemen:

mitxelalonso@gmail.com

Tel.mugik. 605 75 95 71

xaunanue@gmail.com

Tel.mugik. 645 72 10 29